



Ariketa hauek Ikasbileko 2054104 jardueran aurkituko dituzu

Audioaren erreferentzia: JJ-66 Enbor bereko ezpala

Mailak: B2-C1

Funtzioak: Hipotesiak eta asmoak azaldu, deskribaketak egin, antzekotasunak adierazi

Adierazpide linguistikoak: Lexikoa (*zahartzaro, guraso, aita-amaginarrebak, aitona-amonak, larrutan, maitasun, erromantiko, zahartu, itxura, adin, moderno, ...*) -ren antza; plantak egin; -ren moduka; aldetik; -tzat eduki; -en heinean; aditza +ahala

Azken ekintza: Nolako zahartzaroa izango ote dugun elkarri kontatu

EGITEKOAK

1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

1.1 1.1 Enbor bereko ezpala



Gaiari hurbiltzeko eta ikasgelan audio-pasarte entzun aurretik partekatzeko jarduerak: Izenburua da “*enbor bereko ezpala*” esamoldeari buruzko jarduerak.

Zein testuingurutan erabiliko zenuke?



- Zuhaitz batetik egur asko atera daitekeela esateko
- Txikia handia bezain garrantzitsua dela adierazteko
- Bi pertsonen artean antzekotasun handia dagoela adierazteko**
- Berdinak ez izan arren, leku beretik sortuak direla adierazteko

Irakurri beheko esaldiak, denak antzeko zentzua dute, bat izan ezik. Zein?

- Nolako txakurra, halako jabea
- Aitaren ezpalekoa dator semea
- Peruk beste hariko ezpala dirudi**
- Bikiak izanda eta berdin jantzita, bi ur tanta bezalakoak dira




Eman arrazoia(k): **Denetan antzekoak direla esaten da, esaldi horretan ordea, kontrakoa adierazi nahi da.**

2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

- Pertsonen itxurari buruz aritzeko moldeei erreparatu eta esaldiak osatu
- Aita-amaginarreben (edo koinatu-koinatak, anai-arrebak, lehengusu-lehengusuak...) deskribapenak egin aurreko moldeak erabiliz.

1- Entzun aurretik

1.2 Esamoldeari buruz pentsatu duzuna




  Komentatu dezatela ikaskidearekin zer erantzun duten  ariketan. Ondoren, aukeratu dezatela beren ustez nori buruz esango duten “*enbor bereko ezpala*” esamoldea elkarrizketan. Egiaztatzeko, audio-pasarte entzun

- Jon eta bere aita oso antzekoak direla adierazteko
- Oskar eta Niko berdin-berdinak direla esateko

- Joneren senar ohiak eta haren aitak antza handia dutela adierazteko
 Jone bere amaren oso izaera bertsukoa dela esateko

2- Entzun bitartean




2.1 Aita-amaginarrebak




 Jone bere aita-amaginarrebei buruz aritu da gaurko atalean. Entzun eta baieztapenak egia ala gezurra diren adierazi.

Zuzenketa:

- ✓ Oskarren gurasoak astun samarrak iruditzen zaizkio Joneri
- ✓ Batez ere, Oskarren aita egiten zaio jasanezina
- ✗ Okerren eramaten duena da Oskarren ama bere itxurari buruz iritzia ematea
- ✓ Oskar bere aita bezalakoa da, azkar ustekoa eta harroputza
- ✓ Oskarren gurasoak gazte plantak egiten dute eta arriskutsuak iruditzen zaizkio Joneri
- ✓ Jonen ustetan, Oskarren gurasoak, adinean gora egin ahala, izuagoak bihurtu dira
- ✗ Joneren aita-amaginarrebei Niko izena oso modernoak iruditzen zaie eta Nikolas baino gehiago gustatzen zaie.

2.2 Zahartzen ari gara, Jone!




 Zahartzaroari buruz esandako esaldiak: aukeratu erantzun posible bana kasu bakoitzean eskatzen denari erantzuteko.

Zuzenketa:

1. Aukeratu Jonen "zahar modernoak" buruz zer esan duen

- Ez dago bere burua zahartzat duen jende modernoak bezalako jende arriskutsurik
- Ez dago beren burua modernotzat duten zaharrak baino jende okerragorik
- Ez dago beren burua modernotzat duten zaharrak bezalako jende zaharragorik

2. "Ez dakit, nazkagarria ez nuke esango, baina orain ez dut gogorik izaten. Zahartzen ari garela, Jone!" Zertaz ari da Jon?

- Larrua jo ostean zigarroa erretzeari buruz
- Zahartzaroan larrua jotzea nazkagarria iruditzen zaio
- Larrua jotzeko gero eta gogo gutxiago izaten duela

3. Bukatu Joneren esaldia: "Zahartzen garen heinean..."

- Lasaiago bihurtzen joaten gara
- Gure seme-alabekin egoteko gogoia handitzen joaten da
- Gure gurasoen itxura hartzen joaten gara**

3- Entzun ondoren

3.1 Nolako zahartzarora izango duzu?



Ikasleek euren zahartzarolari buruz hitz egingo dute: nola imajinatzen duten, zerikusia ote duen horrek etxean ezagutu dutenarekin, noren antza (fisiko zein izaera aldetik) izango ote duten...

Prozedura:

A. Bakarka egiteko jarduera:

1. Nola imajinatzen dute zahartzarora? Erantzuna aukeratu edo berea idatzi.

Nola imajinatzen duzu zure zahartzarora?

- Beti gazte horietakoa....
- Sutondoan goxo ...
- Bizimodu naturalaz gozaten...
- Ikasi eta ikasi...
- Zaharren egoitzaren batean...
- Besterik: _____



2. Irakurri beheko testua eta ondoren, pentsatu dezatela aukeratu duten bizimodu horretan: zergatik aukeratu duen, nolakoa izango den, zer irabazi edo zer galduko duen aukera hori eginda, noren antza izango ote duen... eman dezatela ahalik eta xehetasun gehien.



*Nola imajinatzen dudan nire **zahartzarora**? Nahiko garbi daukat **baserrian** emango dudala. Ezin dut beste inon imajinatu. Nola ba? Nire gurasoak, aitona-amonak eta haien gurasoak ere, hil arte, hantxe bizi izan dira-eta. Beti esan izan didate **amaren antza** daukadala eta **adin batetik aurrera**, hori **gero eta nabariagoa** egiten da. Nik uste dut, gainera, inbidia pitin bat ere ematen didala amak, beti sasoiko, **adinean aurrera badoa ere**, lanean aktibo mantentzen baita denbora luzez. Baratzean jardun, abereak zainduz eta etxekoez gozatzuz bere eguneroko denbora ondo sano betetzen duelakoan nago. Zoriontsu eta osasuntsu ikusteak benetan pozten nau.*

*Oso pertsona xumetzat daukat neure burua, **naturaz eta familiaz gozatzea** gustuko duena. Agian **ez dut aukerarik izango** beste leku asko ezagutzeko, baina ez dit gehiegi axola; izan ere, maite duzunaz inguratuta bizi bazara, zer inporta du lekuak?*

B. Bikoteka edo talde txikitan egiteko jarduera: Orain, elkartu zure ikaskidearekin eta eman elkarri zuen bizimoduaren berri. Apuntatu zure ikaskideari entzun dizkiozun ideiarik onenak

C. Talde handian: partekatu dezatela bakoitzak bere ikaskidearena. Denak entzun ondoren, ondorioak atera eta zerrenda batean jaso ditzatela, euskaltegiko blogean argitaratzeko.

BAKARKA EGITEKO ARIKETA

Antza

Erreparatu elkarrizketan erabilitako molde eta egiturei itxurari buruz aritzeko eta ondoren, ariketak egin.

Bi pertsona berdintsuak direla esateko

-(r)en antza izan/eduki/hartu,

Oskar aitaren antza hartzen ari da

-(r)en modukoa izan; -(r)en antzekoa izan; -(r)en igoala izan:

Oskar bere aitaren modukoa da

Pertsonaren hainbat alderdiri buruzko nolakotasunak aipatzeko:

nor + aldetik: itxura aldetik, izaera aldetik...

Izaera aldetik, biak berdinak dira: azkar ustekoak eta harroputzak

Denboran zehar pertsona batengan gertatu(-tzen/-ko) diren aldaketak esateko, berriz:

aditza+ahala:

zahartu ahala maniatiko hutsa bihurtzen gara

aditza + -en neurrian, -en heinean:

zahartzen garen heinean gure gurasoen itxura hartzen joaten gara...

aditza + -enean:

zu zahartzen zarenean, haiek baino gaiztoagoa izango zara

Ez den zerbaiten itxura adierazteko

plantak egin:

Gorroto ditut gazte plantak egiten dituzten zaharrak

-tzat izan:

Gorroto ditut beren burua gaztetzat duten zaharrak

1. Osatu esaldiak:

-ren antza // plantak egin // -ren moduka // aldetik // -tzat eduki // -en heinean // ahala

Aitor bere anaiarekin nahasten dut askotan, izan ere batek bestearen **antza** handia du

Txakurra jabearen **moduka** da, alde egiterakoan ez du sekula aditzera ematen

Ez zaitetz lotsati-**plantak** egiten hasi, badakigu eta ez duzula lotsarik.

ez da harrizkoa gizendu **ahala** hezurretako mina hastera

Itxura **aldetik** gogorra da, baina barrutik ogi puska bat da

Eta nik atzerako**itzat nituen** apaizak! Ba gure herrikoa gaztetxera joaten da astebururo

itxura **aldetik**, antzekoak dira aita-semeak

Hazten doazen **heinean**, seme-alabak gurasoengandik urrutiratzen hasten dira

2. Eta zure aita-amaginarrebak (edo koinatu-koinatak, anai-arrebak, lehengusu-lehengusuak...) nolakoak dira? Egizu deskribapena aurreko egiturak eta moldea erabilita . Nahi baduzu, irakasleari erakutsi zuzentzeko.

TRANSKRIPZIOA

JONE Honako bidean duela bi minutu Oskarren gurasoekin egin dut topo.

JON Eta? Zer moduz?

JONE Astun samarrak dira, amak bueno, pase bat dauka, baina aita, aita ez dut agoantatzen, egia esan semearen igoal igoala da.

JON Semea da aitaren modukoa.

JONE Beno hori, berdin dio. Biak dira "listilloak" (azkar ustekoak) eta harropuzak.

JON Ez da hainbesterako izango.

JONE Beste behin izan dugu gure Niko, Nikolas solasaldia... "Niko izen estranjeroa" dirudiela eta halako txorradak (txorakeriak).

JON Nikolas. Bitxia da bai, zein polita den Niko eta zein itsusia Nikolas.

JONE: Beno ez da hainbesterako ere.

JON Niretzat Niko, beti izango da Velvet Underground-ekin kantatu zuen haren izena.

JONE Nikolas ere ez da hain itsusia. Hautzaroan irakurtzen genituen Nikolas txikiren abenturak ederrak ziren.

JON Eta el "pequeño Nicolas" ere hor dago.

JONE Ba azken asteotan dabilzan kontuekin hasi zaizkit. Oskar ez dagoenean ea hura ikusten jarraituko duten eta horrelako tontakeriak?

JON Normala da. Azken finean aitona-amonak dira.

JONE Ia, baina noiz izan dute arazorik biloba ikusteko?

JON Bueno badakizu, jendea adinarekin izua bihurtzen da.

JONE Esperientziagatik diozu?

JON Ba bai aizu. Adinaren kontuak ez dauka erremediorik

JONE Hala ere egia da ez zaidala gustatzen haiekin bakarrik geratzea. Gazte plantak egiten dituzten zahar horietakoak dira, arriskutsuenak nire ustez.

JON: Ea Merkel , garatu teoria hori.

JONE: Ba bai, ez dute onartzen zaharrak direla, jarrera kontua da eta ez dago beren burua modernotzat duten zaharrak bezalako jende txungoagorik.

JON Exageratu (ahobero) hutsa zara Jone.

JONE: Ez.. adibidez kotxea (autoa) hartu eta Cadizera segidan bidaiatzen dutela errepikatzen dute urtero. Ez daukate horretarako adinik. Hauetako edozein egunetan kotxearekin (autoarekin) supermerkatu batetara sartuko dira

JON. Ba zu orain hain gaiztoa bazara, zahartzen zaranean ez dut pentsatu ere egin nahi. Aizu Jone alde egin beharra daukat. Gero hitz egingo dugu.

W-JON Gaur nahi baduzu etorri nire pisura afaltzera.

W-JONE Ez Jon. Hitz egin dugu horretaz. Nahiago zu bazatoz.

W-JON Bale lasai. Beti zure etxean ez ibiltzeagatik, niri igual zait

W-JONE Ez da niregatik badakizu. Nikorengatik da.

W-JON: 9etan azaltzen banaiz ongi?

W-JONE: Perfect

JONE Lehen, maitasuna egin ostean...

JON Maitasuna egin?

JONE Nik ez dut larrutan esango Jon. Nik maitasuna egiten dut. Zuk nahi duzuna egin.

JON Ez, eske arraroa egiten zait, besterik gabe. Gaztelaniaz edo ingelesez ez diot doinu estrainiorik hartzen, baina "maitasuna egin".

JONE: Hara, Jon Harischelar bihurtu zara bat-batean, hitzen doinuaz hizketan.

JON Barkatu, barkatu. Eske zure alderdi erromantiko horrek akaso harritu egin nau

JONE Baina zer diozu? Ni oso erromantikoa naiz eta.

JON Bai bai, Klaro (jakina) Candy Candy zara.

JONE Ba esan behar nizuna, akordatzan garai batean.. m-a-i-t-a-s-u-n-a egin ostean erretzen genuela?

JON Bai

JONE Ez zaizu orain nazkagarria iruditzen hori

JON: Ez dakit, nazkagarria ez nuke esango, baina orain ez dut gogorik izaten, zahartzen ari garela Jone!

JONE Jon, Jon esna zaude?

JON Orain bi segundo, ez. Orain bai.

JONE Aizu, zure aita, hil aurretik nola zegoen?

JON Nire aita? Hil aurretik? Ez dut ulertzen.

JONE Bai, itxura aldetik diot.

JON Beno 66 urterekin hil zen eta oso itxura ona zuen. Gaztea zen.

JONE Tontakeria irudituko zaizu, baina gaur Oskarren gurasoekin topo egin dudanetik ez dut kentzen burutik, zahartzen garen heinean gure gurasoen itxura hartzen joaten garela.

JON Bai hala diote.

JONE Jon, nik nire amaren antza al daukat?

JON Ba egia esan, ez gehiegi, baina hala ere lasai, zahartzen zarenean ere m-a-i-t-a-s-u-n-a egingo baitizut.